



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

GERNIKAKO ARBOLAREN OINORDEKO BAT LANDATU DA GASTEIZEN, ESTADIO FUNDAZIOAREN 60. URTEURRENA DELA ETA

- **Ekitaldiaren buru Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria eta Vital Fundazioetako Presidentea izan dira.**

(Vitoria-Gasteizen, 2021eko zezeilaren 12an). Gasteizko kirol-jarduna sustatzeko eta zabaltzeko erreferentzia garrantzitsua dan Estadio Fundazioak, amaiera emon deutse bariku honetan bere 60. urteurreneko ospakizunei, Agora Plazan, kirol-instalazioen ondoan, Gernikako Arbolaren oinordeko bat landatuta eta horma-irudi bat jarrita.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria, Jon Urresti Vital Fundazioetako presidentea, José Ángel de Lacalle Estadio Fundazioak lantaldearen ordezkaria, eta Teresa Breda, 20.000 abonatu ingururen ordezkaria, izan dira Agora plazan sustraiak botako dituan 16 urteko haretz gazteari lehenengo lur-paladak botateaz arduratu diranak. Ekitaldian izan dira, ganera, Bingen Zupiria Kultura sailburua, Ramiro Gonzalez Arabako Ahaldu Nagusia, Pedro Elosegui Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria eta Gorka Urtaran Gasteizko alkatea.

Horren ostean, “Gernika site” horma-irudia aurkeztu da. Kafetegiaren azpian dago eta Pedro Maria Moraza artistak sortu dau beren-beregi okasino honetarako. Egileak azaldu dauenez, lana euskal herriaren eta bere balioen alegoria bat da, Gernikako Arbolak irudikatzen dituan jatorri demokratikoei eta Gernikako bonbardaketak Gerra Zibilean eragindako sufrimentua gainditzeari ohore eginez.

Bizkaiko Batzarretako lehendakaria pozik agertu da, “arabarren eskaerei eta beharrei jarraituta hazten eta garatzen joan dan” Arabako fundazioak, “Euskal Herriaren ikur unibersalena” aukeratu dauelako 60 urte bete dituala ospatzeko; “gure demokraziaren, gure Eskubide Historikoen eta herri honek bakea lortzeko daukan nahiaren” sinboloa da, “Gernika site” horma-irudiak jasotzen dauen moduan. Otaduiaren berbetan, pandemiaren garaiotan “Itxaropenaren ikur” bihurtu da, eta “guztion ahaleginagaz eta energiagaz egoera honetatik urtengo dogula” espero dauela azpimarratu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

PLANTACIÓN DE UN RETOÑO DEL ÁRBOL DE GERNIKA EN VITORIA-GASTEIZ POR EL 60 ANIVERSARIO DE LA FUNDACIÓN ESTADIO

- El acto ha sido presidido por la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia y el Presidente de las Fundaciones Vital.

(*Vitoria-Gasteiz, a 12 de febrero de 2021*). La Fundación Estadio, un referente mayúsculo en la promoción y divulgación de la práctica deportiva de Vitoria-Gasteiz, ha puesto este viernes el broche final a las celebraciones por su 60 aniversario con la plantación de un retoño del Árbol de Gernika y la colocación de un mural conmemorativo en la Plaza Ágora, al lado de las instalaciones deportivas.

La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, el presidente de las Fundaciones Vital, Jon Urresti, José Ángel de Lacalle, en representación de la plantilla de la Fundación Estadio, y Teresa Breda, en representación de sus cerca de 20.000 abonados y abonadas, han sido las personas encargadas de arrojar las primeras paladas de tierra al joven roble de 16 años que echará raíces en la capital alavesa. Al acto han asistido también el Consejero de Cultura, Bingen Zupiria, el Diputado General de Araba, Ramiro González, el Presidente de las Juntas Generales de Araba, Pedro Elósegui, y el alcalde de Vitoria-Gasteiz, Gorka Urtaran.

A continuación, se ha presentado el mural “Gernika site”, situado bajo la cafetería y creado especialmente por el artista Pedro María Moraza para la ocasión. La obra, según el autor, es una alegoría del pueblo vasco y sus valores, haciendo honor a sus orígenes democráticos representados en el Árbol de Gernika y a la superación del sufrimiento causado por el bombardeo de la villa foral en la Guerra Civil.

La Presidenta de la Cámara vizcaína se ha alegrado de que la fundación alavesa, que “ha ido creciendo y desarrollándose en función de las demandas y necesidades de los y las alavesas”, haya elegido “el símbolo más universal del pueblo vasco” para conmemorar sus 60 años de existencia; un símbolo “de nuestra democracia, de nuestros Derechos Históricos y del anhelo de paz de este pueblo”, tal y como también recoge el mural “Gernika site”. En estos tiempos de pandemia, se ha convertido, según Otadui, en “un símbolo de esperanza” y se ha mostrado confiada de que “con el esfuerzo y la energía de todos y todas saldremos de esta situación”.